

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

-Baliabide fisikoak:

Lehendabizi, zerbitzari bat beharko dugu aplikazioa funtzionatzeko. Baita sare bat ere, langileak ondo koordinatzeko beharrezkoa baita.

- Giza baliabideak:

Guk egingo ditugu bidalketak, eta behar izatekotan, autonomoak kontratatuko genituzke. Bezeroekin lan egiten duen jendea beherapenekin ordainduko diegu, hau da, soldataren parte bat, puntuen bidez jasoko dute, aplikazioan bertan erabili ahal izateko. Era berean, ahalik eta jende gutxien kontratatuko dugu, nahiz eta bezeroaren arreta sailean langile batzuk izan beharko ditugun.

- Finantza baliabideak:

Saiatuko gara diru guztia gure kabuz lortzen edo eusko jaurlaritzak emandako diru-laguntzak erabiliko ditugu, gure enpresaren zabalkuntzan inbertitu ahal izateko. Dena den, seguruenik inbertitzaileak bilatu beharko ditugu.